

Eneko Altuna Egiguren

A maila • **Aipamena**

Eneko Altuna Beasainen jaio zen 2005eko apirilean, eta gaur egun bertako Txindoki Institutuan Batxilergoko lehenengo maila ikasten ari da, zientzien arloan. Bere zaletasunen artean daude futbola eta kriketa. Gipuzkoako Bertso Paper Lehiaketan aipamena jaso zuen hamabi urterekin, eta betitik gustatu izan zaio bertsolaritza.



Doinua: Aita-semeak tabernan daude

EUSKARAREN EGOERA

Joan den astean ni joan nintzen
lagunekin Baionara
eta bertan aurkitu nuenak
niri eman zidan ziztada
erdara baino gutxiago
erabiltzen da euskara
normala al da ba sentitzea
zure herrian nomada?

Begirada arraroak ere
bota zizkiguten sarri
antza beraientzat euskara da
oso oso harrigarri
bistakoa da euskara ez dela
hango kulturen euskarri
euskaraz ez baitzen kale hartan
Jesukristo ere ari.

BERTSOAK

Atzerritarrak zeuden tokian
jarri genuen arreta
oroigarrien denda batean
zeuden lauburuak-eta
turistentzako erakargarri
guretzat da zapalketa
gu hartarako erabiltzea
a zer nolako kopeta!

Gertatuak ni eraman ninduen
hausnarketa egitera
zenbat aldiz gertatzen ote da
gurearen gauza bera
kontu hauek entzundakoan gu
jartzen gara sentibera
negar faltsua egin beharrean
zain dezagun mintzaera

Sare sozialetan gaur egun
gertatzen da antzekoa
euskal komunitatea ez da
inola ere funtsezkoa
euskal jendeak duen joera
da erdarara jotzekoa
tresna digitalak erabiltzea
izan liteke gakoa

Herri baten nortasuna dira
kultura eta hizkuntza
Xalbadorrek esan zuen, bata
bestea gabe da hutsa
kutxa bat dugu guk babesteko
han dago altxor hauskaitza
eta benetan maite badugu
zain dezagun bada kutxa!